

Euskal Herria
País Vasco
Basque
Country



Jon Eskisabel Urtuzaga

Euskal kantagintza: pop, rock, folk

La canción vasca: pop, rock, folk ■ Basque Songwriting: Pop, Rock, Folk





Jon Eskisabel Urtuzaga

Euskal kantagintza: pop, rock, folk

La canción vasca: pop, rock, folk ■ Basque Songwriting: Pop, Rock, Folk

EUSKAL HERRIA
PAÍS VASCO
BASQUE COUNTRY

Euskal Kultura Saila

Colección Cultura Vasca / Basque Culture Series

- 1 Euskararen historia laburra / Breve historia de la lengua vasca / A Brief History of the Basque Language
- 2 XX. mendeko euskal literatura / Literatura vasca del siglo XX / Basque Literature in the Twentieth Century
- 3 Euskal musika klasikoa / Música clásica vasca / Basque Classical Music
- 4 **Euskal kantagintza: pop, rock, folk / La canción vasca: pop, rock, folk / Basque Songwriting: Pop, Rock, Folk**
- 5 Estanpa bilduma / Colección de estampas / A Collection of Prints
- 6 Euskal zinema / Cine vasco / Basque Cinema
- 7 Arkitektura eta diseinua / Arquitectura y diseño / Architecture and Design
- 8 Euskal dantza / La danza vasca / Basque Dance
- 9 Bertsolaritza / El bertsolarismo / *Bertsolaritza*
- 10 Tradizioak / Tradiciones / Traditions
- 11 Euskal sukaldaritzaz / Sobre cocina vasca / On Basque Cuisine
- 12 Euskal antzerkia / Teatro vasco / Basque Theater

Euskal Kultura Sailaren editorea
Editora de la Colección Cultura Vasca
Basque Culture Series Editor:
Mari Jose Olaziregi

© **Testua / Texto / Text:**
Jon Eskisabel Urtuzaga

© **Traducción al español:**
Estibaliz Lizaso

© **Translation into English:**
Cameron Watson

© **Diseinua / Diseño / Design:**
Tiktak multimedia

© **Azala / Portada / Front Cover**
Argazki Press S.L.

Inprimatzailea / Imprime / Printed by:
Gráficas Dosbi

L.G. / D.L. / L.D.: VI-78/2012

ISBN: 978-84-614-9750-8

Etxepare Euskal Institutua
Instituto Vasco Etxepare / Etxepare Basque Institute
Prim 7, 1
E- 20006 Donostia-San Sebastián
etxepare@etxepare.net
www.etxepareinstitutua.net

Euskara, jalgi hadi mundura

Euskara, muéstrate al mundo

Euskara, go forth into the world

1545. urtean, Bernart Etxeparek bere *Linguae Vasconum Primitiae*, euskarazko lehenengo liburua, argitaratu zuenean, desira bat adierazi zuen: “**Euskara, jalgi hadi mundura**”.

Etxepare Euskal Institutuak gure lehenengo idazlearen omenez hartu du izena, eta, haren desira gure izatearen ardatz bilakaturik, euskara eta euskal kultura mundura ateratzea eta zabaltzea du helburutzat.

Batetik, gure eginkizuna euskararen ezaguera sustatzea da eta haren ikasketa bultzatzea esparru akademikoan; eta bestetik, gure sortzaileak eta haien adierazpen artistikoak nazioartean ezagutarazten ahalegintzen gara: gure artista plastikoak, musikariak, dantzariak, idazleak, zine-zuzendariak, antzezleak...

Gure hizkuntza eta kultura munduan barrena zabaltzeko ahalegin horretan, liburu-sorta bat sortzea izan da gure lehenengo lanetako bat, horren bidez informazioa emateko euskarari buruz eta gure kultura osatzen eta aberasten duten alor artistiko eta kultural guztiei buruz.

En 1545, se publicó el primer libro en euskara *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernart Etxepare, quien formuló un deseo: “**Euskara, jalgi hadi mundura**” (Euskara, muéstrate al mundo).

El Instituto Vasco Etxepare toma su nombre de este primer autor vasco, y convierte, además, su deseo en nuestro lema. Siendo el objetivo y la misión del Instituto la de promover y difundir la lengua y la cultura vasca por todo el mundo.

Por un lado, es nuestra tarea fomentar el conocimiento sobre nuestra lengua, y su aprendizaje en el ámbito académico. Y por otro, queremos dar a conocer internacionalmente las manifestaciones artísticas de nuestros creadores: artistas plásticos, músicos, bailarines, escritores, directores de cine, actores, etc.

Una de las primeras tareas en la internacionalización de nuestra lengua y cultura ha sido crear esta colección con el objetivo de informar sobre nuestro idioma, el euskara, y sobre todas las disciplinas artísticas y culturales que conforman la riqueza de nuestra cultura.

In 1545 the first book in Euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, was published by Bernart Etxepare, who expressed one wish: **Euskara, jalgi hadi mundura** *Euskara, go forth into the world*.

The Etxepare Basque Institute takes its name from this first Basque author and, moreover, converts his wish in our motto. The Institute's objective and mission is to promote and diffuse the Basque language and culture throughout the world.

On the one hand, our task is to promote knowledge about our language, and its study in the academic sphere. And on the other, we want to introduce the creative expressions of our artists: visual artists, musicians, dancers, writers, film directors, actors, and so on.

One of the first tasks in the internationalisation of our language and culture has been to create this collection with the aim of informing people about our language, Euskara, and about the artistic and cultural disciplines that make up the wealth of our culture.

Aizpea Goenaga

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria
Directora del Instituto Vasco Etxepare
Director of the Etxepare Basque Institute

Aurkibidea

Índice ■ Index

Sarrera Introducción Introduction	6
Mende erdiko ibilbide historikoa Medio siglo de historia A Historical Trajectory Spanning Half a Century	12
Biografia hautatuak Selección de biografías Select Biographies	44
Bibliografia / Bibliografía / Bibliography	<u>78</u>
Argazkiak / Fotografías / Photographs	<u>79</u>
Jon Eskisabel Urtuzaga	<u>80</u>

Jon Eskisabel Urtuzaga

Sarrera

Introducción ■ Introduction

Euskal kulturak oro har, baina liburugintzak eta disko-gintzak bereziki, Durangoko Azokan izaten dute urteko hitzordurik garrantzitsuenak. 1965. urtean lehen aldiz antolatu zutenetik, bi arlo horietan euskaraz egindako sorkuntzaren erakusleho nagusia da azoka, eta berau da gaur egun Euskal Herrian egiten den kultur ekitaldirik jendetsuenetakoa ere. Abenduko lehen egunetan, Bizkaiko herri horretan, ekoizpen berria zein aurreko urteetakoak bildu, ordenatu eta salmahaietara eramaten dute diskoetxeek eta argitaletxeek, aurretik etenik gabe igarotzen diren milaka bisitarien eskura jartzeko. Urte osoko salmentaren ehuneko handi bat egun gutxi horietan gauzatzen dute batzuek zein besteek. Baina Durangoko Azokaren garrantzia ez dagokio alderdi ekonomikoari bakarrik; sortzaileen eta hartzaileen topagunea ere bada,



45. Durangoko Liburu eta Disko Azoka / 45 Feria del Libro y Disco Vasco / 45th Basque Book and Disc Fair in Durango.

La Feria de Durango suele ser la cita anual más importante para la cultura vasca, y especialmente para las industrias editorial y discográfica. Desde su primera edición en 1965, la feria es el mayor escaparate de la producción cultural en euskera en estos dos campos y, a su vez, se ha convertido en uno de los acontecimientos culturales más multitudinarios que se celebran en el País Vasco. Los primeros días de diciembre, esta localidad vizcaína acoge editoriales y discográficas que recogen, ordenan y llevan a los stands toda la producción, tanto nueva como de años anteriores, para exponerla ante los miles de visitantes. Unos y otros concentran en estos días un porcentaje significativo de las ventas anuales. Pero la trascendencia de la Feria de Durango no se limita al ámbito económico: funciona como punto de encuentro entre creadores y público, y permite que ambas partes se conozcan y relacionen, sobre todo, desde la creación de Ahotsenea, perímetro donde se presentan en directo las novedades editoriales y musicales del año. Suele ser una ocasión idónea para obtener una visión global de la producción anual. Todo ello hace que la Feria de Durango sea sinónimo de fiesta de la cultura vasca.

Según datos aportados por los organizadores de la asociación Gerediaga, en 2010, en la cuadragésimo quinta edición de la Feria, se presentaron 85 nuevos discos, superando toda edición anterior. Por ejemplo, podemos decir que en comparación con las 45 novedades que hubo en 2006, en 2007 se vivió un significativo aumento (74), pero en los dos años siguientes las cifras volvieron a descender (64 en 2008 y 60 en 2009). De estos datos podemos concluir que la producción de las creaciones en euskera se mantiene, que todavía se siguen componiendo, grabando y editando un número considerable de canciones, a pesar de que también nuestra industria discográfica haya sufrido las consecuencias de la crisis que ha castigado a nivel mundial la industria musical esta última década. Los cambios en los métodos de produc-

The most important annual date for Basque culture in general, and book and music publishing in particular, is the Durango Book and Music Fair. Since it was first held in 1965, the fair has served as the principal shop window for Basque-language creative production in these two areas, and is today among the most popular cultural events in the Basque Country. Held in early December in this Bizkaian town, record labels and publishing houses set up stalls to sell their new releases and publications, as well as their back catalogue, to thousands of visitors. Many of these record labels and publishing houses achieve a high percentage of their yearly sales in these few days. But the Durango Book and Music Fair is not just important in a financial sense; it is also a meeting point for artists and the public. It allows both to get to know each other face-to-face, and even more since the Ahotsenea site was established within the fair for artists to present their new books and records. The fair is therefore an appropriate moment to gauge the extent of creative activity during the previous year. All of this, then, makes the Durango Book and Music Fair a festival of Basque culture as a whole.

For its forty-fifth edition in 2010, according to statistics furnished by the Gerediaga Association (the organizing body), eighty-five new records were presented at the fair, more than in previous years. For example, in 2006 there were forty-five new records, with this figure rising noticeably in 2007 to seventy-four, but thereafter, during the next two years the number dropped to sixty-four in 2008 and sixty in 2009. Consequently, from this data we can conclude that artistic creativity in Euskara has remained productive and that the composing, recording and publishing of music in the language still maintains a noteworthy level. However, our record labels have also suffered from the consequences of a crisis that has shaken and transformed the music industry in the global market during the last decade. Changes in the way that music is produced, diffused and consumed have

Gaur egun euskaraz egiten den musikaren zertzelada batzuk emate aldera, badira gutxienez hamabost urte askotarikoa izatea dela euskal kantagintzaren ezaugarri nagusietako bat, ia edozein estilo euskaraz entzuteko aukera dagoela

batzuen eta besteen arteko aurrez aurreko harremana eta elkar ezagutza ere ahalbidetzen du, are gehiago liburu eta disko berrien zuzeneko aurkezpenetarako Ahotsenea izeneko gunea sortu zenetik. Urteko sorkuntzaren ikuspegi orokorra hartzeko talaia egokia izaten da. Horrek denak euskal kulturaren festa bilakatzen du Durangoko Azoka.

Azokaren 45. ekitaldian, 2010ekoan, Gerediaga elkarteak antolatzaileek emandako datuen arabera, 85 disko berri aurkeztu ziren, aurreko urteetan baino gehiago. Esate baterako, 2006an 45 izan ziren nobedadeak; 2007an nabarmen egin zuen gora kopuruak (74), baina hurrengo bi urteetan behera egin zuen (2008an, 64 eta 2009an, 60). Beraz, datu horietatik ondoriozta dezakegu euskarazko sorkuntzak eutsi egiten diola ekoizpenari, kantuak sortzen, grabatzen eta editatzen direla kopuru nabarmenean oraindik ere, nahiz eta gure diskogintzak ere pairatu dituen merkatu globalean musikaren industria azken hamarkadan astindu eta eraldatu duen krisiaren ondorioak. Musika ekoizteko, zabaltzeko eta kontsumitzeko moduen aldaketak negozio ereduaren inguruko eztabaida ekarri du Euskal Herrira ere, eta diskoetxe konbentzionalak lehen baino gutxiago argitaratzen duten heinean, autoekoizpena gero eta indar handiagoa hartzen ari da. Hori da, hain zuzen ere, folk, pop eta rockaren alorrean azken urteetan gertatu den fenomenorik aipagarriena.

Gaur egun euskaraz egiten den musikaren zertzelada batzuk emate aldera, badira gutxienez hamabost urte askotarikoa izatea dela euskal kantagintzaren ezaugarri nagusietako bat, ia edozein estilo euskaraz entzuteko aukera dagoela (pop, rock, heavy metal, reggae, ska, blues, musika elektronikoa, jazz, punk-rock edota hip hop, batzuk gehiago eta bestetaz gutxiago). Kalitate teknikoaren aldetik gero eta disko hobeak argitaratzen dira, arrazoi jakinengatik: bate-tik, esperientziaren bidez ofizioa ikasi duten musikari eta kantari beterranoen ondoan, musika eskola eta kontserbatorioetan treburiko belaunaldia plaza-

ción, difusión y consumo de la música también han despertado en el País Vasco controversias en cuanto al modelo de negocio y, mientras las discográficas convencionales han reducido la producción a niveles desconocidos, la autoproducción ha comenzado a ganar terreno. Y éste ha constituido el fenómeno más significativo en el ámbito del folk, pop y rock.

Al mencionar algunas de las características de la música actual que se hace en euskera, uno de los rasgos más destacados sería su diversidad, el hecho de que en los últimos quince años ha llegado a abarcar prácticamente cualquier estilo (a distintos niveles: pop, rock, heavy metal, reggae, ska, blues, música electrónica, jazz, punk-rock o incluso hip hop). En cuanto a la calidad técnica, cada vez se editan mejores discos, por razones concretas: por un lado, junto a los veteranos músicos y cantantes que han aprendido su oficio a base de experiencia, ha surgido una nueva generación de artistas formados en escuelas de música y conservatorios; por otro lado, se han creado estudios de grabación equipados con las últimas tecnologías (Elkar, Garate, IZ, Katarain Lorentzo Records...), dirigidos por técnicos profesionales con un largo recorrido a sus espaldas (Jean Phocas, Kaki Arkarazo, Angel Katarain, Aitor Ariño, Cesar Ibarretxe...). Hasta la década de los 80, era habitual salir del País Vasco para grabar los discos, pero hoy en día sucede todo lo contrario: ahora son los grupos foráneos los que vienen a grabar a nuestros estudios.

A lo largo de todos estos años han evolucionado, a su vez, otros ámbitos musicales: se han creado agencias de contratación (Matxitxa, Serrano, Akeita...), medios de comunicación especializados (las revistas *Muskaria* y *Entzun!*, la emisora de radio Gaztea, los suplementos de prensa...), salas de conciertos (café teatro, locales autogestionados...), festivales (Euskal Herria Zuzenean), etc.

Se ha tenido que recorrer un largo camino para llegar hasta aquí. “Somos porque han sido”, reza el refrán. Han pasado 50 años desde que la canción vasca dio

also led to a debate in the Basque Country about the kind of business model employed, and while conventional record labels are bringing out fewer and fewer works, self-production is on the rise. In fact, this is precisely the most striking development to have taken place in the fields of folk, pop and rock in recent years.

To give some idea about contemporary Basque-language music, one of the main features of songwriting in Euskara for at least the last fifteen years has been its diversity, so that now one can listen to just about any kind of music in the language (to differing degrees, pop, rock, heavy metal, reggae, ska, blues, electronic music, jazz, punk rock or hip hop). From a technical point of view, better records are being produced for specific reasons: on the one hand, besides singers and musicians who have learned the profession through direct experience, a generation of people trained in music schools and conservatories has come to the fore; on the other, studios furnished with state-of-the-art technology have been opened (Elkar, Garate, IZ, Katarain Lorentzo Records and so on) under the charge of widely experienced professional technicians (for example, Jean Phocas, Kaki Arkarazo, Angel Katarain, Aitor Ariño and Cesar Ibarretxe). Up to the 1980s, it was customary to record outside the Basque Country but nowadays the opposite is the case as foreign groups and singers often come here to record.

Other areas within music have also been developed during these past few years: booking agencies have been formed (Matxitxa, Serrano and Akeita, for example), specialist media have emerged (the magazines *Muskaria* and *Entzun!*, the Gaztea radio station, newspaper supplements, and so on), new concert venues have been built (the café theatres and self-run premises for instance), and festivals organized (such as Euskal Herria Zuzenean).

It has taken a long time to reach this situation. An old Basque refrain says that “we are what we are be-

Bost hamarkada hauetan gure folk, pop eta rock musikak ia denetarako balio izan du: lirikarako zein aldarrikapen sozial eta politikoetarako, olgetarako zein engaiamendurako, tradizio zaharren berreskurapenerako zein berrien sorrerarako...

ratu da; bestetik, puntako teknologiaz hornituriko grabazio estudioak zabaldu ditugu (Elkar, Garate, IZ, Katarain Lorentzo Records...), ibilbide luzeko soinu teknikari profesionalen ardurapean (Jean Phocas, Kaki Arkarazo, Angel Katarain, Aitor Ariño, Cesar Ibarretxe...). 80ko hamarkadara arte ohitura zen Euskal Herritik kanpora joatea grabatzera, baina gaur egun alderantziz gertatzen da: kanpoko taldeak eta abeslariak dira maiz gurera etortzen direnak.

Musikagintzaren beste arlo batzuk ere garatu dira urte hauetan guztietan: kontratazio agentziak sortu dira (Matxitxa, Serrano, Akeita...), komunikabide espezializatuak (*Muskaria* eta *Entzun!* aldizkariak, *Gaztea* irratia, egunkarietako gehigarriak...), kontzertu aretoak (kafe antzokiak, lokal autogestionatuak...), jaialdiak (Euskal Herria Zuzenean)...

Egoera horretara iristeko bidea luzea izan da. "Izan direlako, gara", dio esaera zaharrak. 50 urte igaro dira euskal kantagintza modernoak lehen urratsak eman zituenetik. Geroztik katea ez da eten, belaualdi bakoitzak emandako fruituak hurrengoek jaso, barneratu, garaian garaiko molde eta eraginetara egokitu eta itzuli egin dizkiote gizarteari, eta mugak gainditu dituzte kasu askotan, hala hizkuntzazkoak nola geografikoak.

Bost hamarkada hauetan gure folk, pop eta rock musikak ia denetarako balio izan du: lirikarako zein aldarrikapen sozial eta politikoetarako, olgetarako zein engaiamendurako, tradizio zaharren berreskurapenerako zein berrien sorrerarako... Euskal nortasuna osatzen, gaurkotzen eta munduko egiten betekizun garrantzitsua jokatu du kantagintzak, beste hainbat kulturatan bezala. Tresna indartsuak baitira hitza (hizkuntza) eta musika.

Euskal Herriak kantari eta musikari ugari eta onak eman ditu, eta emango ditu etorkizunean ere. Gure kantagintzak izan duen bilakaera eta berau eragin duten sortzaile esanguratsuenetako batzuen ibilbidea azaltzea da liburuxka honen asmoa.

sus primeros pasos. Desde entonces, la cadena ha seguido creciendo eslabón a eslabón, y los frutos que ha dado cada generación los han recogido las venideras, quienes los han interiorizado, adaptado a las influencias y moldes del momento y devuelto a la sociedad, superando, a menudo, barreras lingüísticas y geográficas.

Durante estas cinco décadas, el folk, el pop y el rock vascos han servido prácticamente para todo: tanto para la lírica como para las reivindicaciones sociales y políticas, para el divertimento y la solemnidad, para la recuperación de viejas tradiciones y creación de nuevas... Como en tantas y tantas otras culturas, la canción ha jugado un papel primordial en la formación, actualización y globalización de la identidad vasca. Porque tanto la palabra (o lengua) como la música son instrumentos de poder inconmensurable.

El País Vasco ha sido, y será, cuna de grandes cantantes y músicos. Este folleto trata de la evolución de nuestra canción y la trayectoria de algunos de los compositores más significativos.

cause of those who came before," and it has been fifty years since the first steps were taken in modern Basque songwriting. Since that moment an unbroken chain has been developed with successive generations building on the work of their predecessors, learning from it, adapting it to the times, adjusting it according to new tendencies, and giving it back to society, and in many cases this broke new boundaries, both linguistic and geographical.

In these past five decades our folk, pop and rock music has served as a platform for almost everything: lyrical as well as social and political statements, fun as well as different kinds of commitment, recovering old traditions as well as creating new ones, and so on. As in many other cultures, songwriting has played an important role in creating and renewing Basque identity, and projecting it internationally; because words (language) and music form a powerful instrument.

The Basque Country has provided a wealth of great singers and musicians, and it will continue to do so in the future. The goal of this book is to explain the evolution of our songwriting and recall the careers of certain significant artists who have been especially influential.

Mende Erdiko ibilbide historikoa

Medio siglo de historia
A Historical Trajectory
Spanning Half a Century

Hastapenak

Mixel Labegeriek (1921-1982) magnetofoi batean grabaturiko kantuak argitaratu ziren unea jotzen da euskal kantagintza modernoaren abiapuntutzat. 1961. urtean izan zen, Baionan (Lapurdi). Aurretik edo garai berean egin zituzten kantagintzari aire berriak ekartzeko beste saiakera batzuk, Bilboko Soroak taldearena esaterako, ahantzi gabe Nemesio Etxaniz apaizak hainbat doinu moldatzeko eta euskaratzeko egindako lana, baina gerora izandako eraginarengatik Labegerieri aitortzen zaio lehen kantari modernoa izatea.

Labidez medikua zen Labegerie, baina gazterik euskararen eta euskal kulturaren aldeko hainbat ekimen eta erakundetan parte hartu zuen, eta engaiamendu horren barruko beste alderdi bat kantagintza zen. Geroago politikagintzari eskaini zion denbora gehien, Kanbo herriko alkateaz gain, Parisen diputatua izate-raino. Labegerieren berritasunetako bat, garai hartan askori eskandalagarria iruditu zitzaiena, gitarra espainola edo klasikoaren erabilera izan zen –ordura arte, a cappella abesten zen, abesbatzetan eta zortzikoteetan–; beste aldaketa nagusia hitzei zegokien, euskal nortasunaren ukazioaren aurkako protesta kanta ekarri zuelako nolabait. Hirugarrenik, Labegeriek berak sortuak ziren kantu guztiak, hitz eta doinu. Zortzi abesti baino ez zituen grabatu, Goiztiri zigiluak bi disko txikitan argitaratu zituenak, baina kantu haiek (“*Astoa balaan*”, “*Gazteri berria*”, “*Aurtxo aurtxoa*”, “*Primaderako liliak*”, “*Gazte eskualdunaren kantua*”...) Euskal Herri osora zabaldu ziren, baita Francoren Espainiako diktadurapean zeuden hegoaldeko herrialdeetara sasian iritsi ere, eta gazte abertzaleen hurrengo urteetako ereserki bilakatu ziren. Urte gutxi batzuk geroago, Ez dok Amairu taldeak Labegerieren garrantzia aitortuko zuen. Xabier Leteren hitzetan, “Labegerieren diskoek, batez ere lehenak, izugarritzko garrantzia izan zuten euskal kanta herrikoiairen estilo aldaketan: gitarra soilez lagunduriko

Inicios

La canción moderna vasca nace con Mixel Labegerie (1921-1982) cuando el cantautor labortano publicó canciones grabadas en un magnetofón. Sucedió en 1961 en Bayona (Laburdi). Antes o en esa misma época hubo otros intentos de aportar nuevos aires a la canción vasca, como las del grupo Bilboko Soroak, sin olvidar el trabajo que realizó el cura Nemesio Etxaniz en adaptar y traducir al vasco diversas melodías. Pero, dada su influencia posterior, Labegerie es considerado el primer cantante moderno.

De oficio médico, Labegerie participó desde joven en varias organizaciones e iniciativas a favor del euskera y la cultura vasca, y la canción fue un aspecto más dentro de ese compromiso. Más adelante dedicó la mayoría de su tiempo a la política, siendo tanto alcalde de la villa de Kanbo como diputado en París. Una



Mixel Labegerie, lehen euskal kantari modernoa /
El primer cantautor moderno vasco, Mixel Labegerie /
The first Basque modern singer-songwriter, Mixel Labegerie.

The Beginnings

The first songs recorded by Mixel Labegerie (1921-1982) with a guitar and magnetophon tape recorder mark the starting point of modern Basque-language music. The year was 1961, and the place Baiona (Lapurdi). Previously and at the same time there had been several other attempts at breathing some new life into Basque songwriting: the group Soroak, for example, from Bilbao, and not forgetting the efforts of the priest Nemesio Etxaniz to adapt several tunes and translate them into Basque. However, Labegerie's later work has seen him recognized as the first modern singer in Euskara.

By profession, Labegerie was a doctor, but from an early age he had been involved in numerous initiatives and organizations promoting Euskara and Basque culture in general. And another facet of this more general commitment was songwriting. Later, he came to dedicate most of his life to politics, becoming both the mayor of Kanbo and a deputy in the French National Assembly in Paris. One of Labegerie's novelties, and one that at the time caused a great stir for a lot of people, was his use of the Spanish or classical guitar; because until that time music had been sung a cappella in Euskara, whether in choirs or octets. Another innovation concerned his lyrics, which were the basis of (to some extent) protest songs against rejecting Basque identity. Finally, Labegerie also stood out in that he composed both all his own music and all his own lyrics.

He only recorded eight songs for two short records published by the Goiztiri label, but these songs—among them, “*Astoa balaan*” (Balaam the donkey), “*Gazteri berria*” (New youth), “*Aurtxo aurtxo*” (Little baby), “*Primaderako liliak*” (The flowers of spring), “*Gazte eskualdunaren kantua*” (Song for a young Basque)—were distributed throughout the Basque Country. They were even heard in the towns of Hegoalde, where at that time people lived under Fran-



Ez dok Amairu, artista kolektiboa / El colectivo de artistas Ez dok Amairu / The artistic collective, Ez dok Amairu.

kantak baitziren, ahots partikular bezain apal eta arruntaz kantaturikoak, molde komertzialei zegozkien amaneramentu eta sofistikazio guztietatik urrutit¹. Labegeriek hasitako bidea Ez dok Amairuk zabaldu eta sendotu egin zuen. Talde bat baino gehiago kolektibo bat izan zen, kantari eta musikariez gain, idazleak, artistak eta dantzariak ere hartu baitzituen bere baitan. Hori dela eta, ez zituen ohiko kontzertuak eskaintzen, baizik eta hainbat arte diziplina batzen ziren Ez dok Amairuren emanaldietan: kantua, dantza, txalaparta (perkusio tresna), poesia...

Hala ere, euskal kantagintzari modernotasuna ekartzeko asmoarekin sortu zuten 1965ean, Kataluniako *nova canço*-ren oinarriak ezarri zituen Els Setze Jutges taldearen ispiluan begiratuta. Herri kantutegi tradizionala gaurkotzea eta kanpoko eraginetatik –Frantziako *chanson*-etik, AEBetako protesta kantatik, Hego Amerikako kantagintzatik...– edanez kantu berriak sortzea ziren bi helburu nagusiak. Gerora

ibilbide luze eta emankorra egin duten sortzaileak bildu ziren Ez dok Amairun, hala kantariak (Mikel Laboa,² Benito Lertxundi,³ Lourdes Iriondo, Xabier Lete,⁴ Julen Lekuona, Oskarbi taldea...) nola idazleak (Joxean Artze, Jose Angel Irigarai...). Jorge Oteiza eskultoreak jarri zion izena taldeari (*No hay trece; There isn't thirteen*), Resurreccion Maria Azkuek jasotako herri ipuin batean oinarrituta: 13 zenbakiaren ukoak euskal kulturaren aurkako malefizioa deuseztuko zuen. Eta lortu zuen, nolabait. Iraun zuen bitartean, 1972ra arte, taldeak inarrostea eragin zuen gizartean, eta lehen aldiz, zentsurak oztopoak jarri arren, modernitatearen adierazpen kultural batek interesa piztea eta jendetza erakartzea lortu zuen. Taldearen sorkuntza kolektiboak ekarritako lanik gorena *Baga biga higa* ikuskizuna izan zen, 1970ean.

Ez dok Amairuren agerpena ez zen gertakizun isolatu bat izan, 60ko hamarkadan euskal kulturak bizi zuten pizkundearen ondorio baizik. Garai bertsuan

¹ Jakin aldizkaria, 1977ko 4. zenbakia

² Ikus 44 orrialdea

³ Ikus 46 orrialdea

⁴ Ikus 46 orrialdea

de las innovaciones de Labegerie, que en su época muchos consideraron escandalosa, fue el uso de la guitarra española o clásica –hasta entonces solo se había cantado a *cappella* en coros y octetos–; otra de sus innovaciones se refiere a las palabras, ya que, de alguna manera, creó un tipo de canción protesta contra la negación de la identidad vasca. En tercer lugar, cabe destacar que tanto las letras como las melodías que cantaba eran suyas.

Sólo grabó ocho canciones, que el sello Goiztiri publicó en dos discos sencillos, pero aquellas canciones (“*Astoa balaan*”, “*Gazteri berria*”, “*Aurtxo aurtxo*”, “*Primaderako liliak*”, “*Gazte eskualdunaren kantua*”...) se difundieron por todo el País Vasco (llegando incluso a escondidas al territorio del sur, que vivía bajo el dominio de la dictadura española franquista) y se convirtieron en himnos de los jóvenes independentistas en los años siguientes.

Pocos años más tarde, el grupo Ez dok Amairu subrayó la importancia de la labor de Labegerie. Según declaró Xabier Lete, “Los discos de Labegerie, sobre todo el primero, han sido de importancia vital en el cambio que ha sufrido la canción popular vasca: eran canciones acompañadas por una simple guitarra, cantadas por una voz tan particular como corriente, lejos de las formas y sofisticaciones propias de los moldes comerciales”.¹ El camino emprendido por Labegerie lo afirmó y extendió Ez dok Amairu. Más que un grupo, fue éste un colectivo, ya que incluía, además de cantantes y músicos, escritores, artistas y bailarines. Por ese motivo, sus conciertos se salían de lo común y en las actuaciones de Ez dok Amairu se unían varias disciplinas: canto, danza, chalaparta (instrumento de percusión), poesía...

Sin embargo, este grupo se fundó en 1965 con la intención de aportar modernidad a la canción vasca, al estilo del grupo Els Setze Jutges, que había fundado las bases de la *nova cançó* catalana. Los dos principa-

co’s dictatorship in Spain, and they became hymns for young Basque nationalists in the years that followed.

Only a few years later the Ez dok Amairu group acknowledged Labegerie’s importance. In Xabier Lete’s words, “Labegerie’s records, especially the early ones, were enormously important in transforming the style of popular Basque songs: they were songs aided by a simple guitar, sung in a simple, natural and singular way, and not at all like those sophisticated and affected commercial styles”.¹ The path that Labegerie forged was taken up and expanded by Ez dok Amairu. More than a group, this was a collective because besides singers and musicians, its members were also writers, artists and dancers. Because of this, Ez dok Amairu did not play typical concerts but, instead, their performances were comprised of various different arts: song, dance, the txalaparta (a wooden percussion instrument), poetry, and so on. That said, Ez dok Amairu was formed in 1965 with the purpose of modernizing Basque songwriting, and was influenced by the foundations for the *nova canço* (new song) established by Els Setze Jutges in Catalonia. In particular, they sought to create new songs by pursuing two main objectives: updating the traditional Basque songbook and drawing on external influences (especially the French *chanson*, protest songs from the United States and Latin American songwriting). Later, the founders of Ez dok Amairu went on to have long and productive solo careers, both as singers (Mikel Laboa,² Benito Lertxundi,³ Lourdes Iriondo, Xabier Lete,⁴ Julen Lekuona, and the Oskarbi group) and as writers (Joxean Artze and Jose Angel Irigarai). The sculptor Jorge Oteiza named

¹ Xabier Lete, “Kanta Berria, erresistentzi abestia,” *Jakin* 4 (1977), 18.

² See page 45

³ See page 47

⁴ See page 47



Pantxoa eta Peioren disko baten zuzeneko grabazioa, Tolosako Leidor antzokian / En el teatro Leidor de Tolosa, grabación en directo de un disco de Pantxoa y Peio / Recording session by Pantxoa and Peio for a live record in the Leidor Theatre, Tolosa.

sortu ziren, esaterako, Jarrai antzerki taldea eta Argia dantza taldea; euskal literaturari modernitatearen ateak zabaldu zizkieten lehen eleberririk plazaratu ziren *–Leturiaren egunkari ezkutua* eta *Elsa Scheelen*, biak Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* idazlearenak– eta arte plastikoetan zeresan handia emango zuen belaunaldi berri bat agertu zen: Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Nestor Basterretxea, Jose Luis Zumeta, Remigio Mendiburu eta beste hainbat... Diktaturak ezarritako giro gris, hits eta itogarrian kultur adierazpide berrien beharra zuen euskal gizartearen egarria ase zuten.

Kantautoreak, gizartearen ahots

Ez dok Amairuko abeslariak, besteak beste, kanturako zaletasuna piztu zuten gizartearen. Mikel Markez kantariak berriki esan duenez, “Ez dok Amairu eskola

bat izan zen, oraindik agortu gabe dagoena”⁵. Nonahi agertu ziren gitarra soil baten laguntzaz eszenatokitara igotzeko prest zeuden gazteak. Batzuek euskal kantu zaharrak modu arinean emateko edo nazioarteko kantu arrakastatsuak euskaratzeko bidea hartu zuten. Asmo horrekin sortu ziren Urretxindorrek, Ameslariak, Argoitia neba-arrebak eta beste zenbait talde.

Baina 70eko hamarkadaren hasieran beste joera bat nagusitu zen. Ordurako 40 urteko frankismo garaia azkenetan zegoen, eta diktaturaren amaierarekin aldatuta politikoak (demokrazia, preso politikoen amnistia, euskararen legalizazioa...) berehala etorriko ziren esperantzak erroak egin zituen jendartearen. Testuinguru horretan, Pantxoa eta Peio, Gorka Knorr, Urko, Manex Pagola, Maite Idirin, Gontzal Mendibil eta Xeberri, Etxamendi eta Larralde, Guk taldea, Jokin

⁵ Argia aldizkaria, 2.261. zenbakia, 2011

les objetivos eran actualizar el cancionero tradicional y crear nuevas canciones bebiendo de las influencias foráneas —la *chanson* francesa, la canción protesta de los EE. UU., la canción suramericana...—. Ez dok Amairu reunió artistas que posteriormente tuvieron largas y productivas carreras, tanto cantantes (Mikel Laboa,² Benito Lertxundi,³ Lourdes Iriondo, Xabier Lete,⁴ Julen Lekuona, el grupo Oskarbi...) como escritores (Joxean Artze, José Ángel Irigarai...). El nombre surgió de la mano del escultor Jorge Oteiza (*No hay trece; There isn't thirteen*), que se basaba en un cuento popular recogido por Resurrección María Azkue: La negación del número 13 tenía que destruir el maleficio contra la cultura vasca. Y, en cierto modo, lo consiguió. Hasta su disolución en 1972, el grupo agitó por primera vez la sociedad; por encima de los obstáculos de la censura, consiguió despertar el interés por aquella expresión cultural de modernidad y atraer a seguidores. El fruto más exitoso del colectivo fue el espectáculo *Baga biga higa* de 1970.

La aparición de Ez dok Amairu no fue un hecho aislado, sino que se sitúa dentro del marco del renacimiento de la cultura vasca de los 60. En esa época se crearon, por ejemplo, el grupo teatral Jarrai y el grupo de baile Argia. Asimismo, se publicaron las primeras novelas que abrían las puertas de la literatura vasca moderna —*Leturiaren egunkari ezkutua* y *Elsa Scheelen*, ambas del escritor José Luis Álvarez Enparantza Txillardegí— y destacó una nueva generación de artes plásticas que daría mucho de qué hablar: Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Nestor Basterretxea, José Luis Zumeta, Remigio Mendiburu y muchos otros. Entre todos saciaron la sed de nuevas expresiones culturales que tenía la sociedad vasca, la cual vivía bajo el gris, apagado y asfixiante ambiente impuesto por la dictadura.

² Consulte la página 45

³ Consulte la página 47

⁴ Consulte la página 47

the group *Ez dok Amairu* (*There aren't thirteen*) after a short story by Resurrección María Azkue, because as he saw it, a denial of the number thirteen would serve to destroy the curse on Basque culture. And with this, he achieved the goal, to some extent. Whilst the group remained together, until about 1972, it caused a stir in society at large and for the first time, although there were obstacles because of the censorship in place at the time, a modern Basque cultural expression managed to spark people's interest and attract the public. The group's most important collective work was the *Baga biga higa* performance in 1970.

The emergence of Ez dok Amairu was not an isolated event. Instead, one must place it within the context of the Basque cultural renaissance of the 1960s. At the same time, for example, the Jarrai theatre group and the Argia dance group were formed; the first modern novels in Euskara —*Leturiaren egunkari ezkutua* (Leturia's hidden newspaper) and *Elsa Scheelen*— were published by Txillardegí (Jose Luis Alvarez Enparantza); and in sculpture and painting, a new generation of artists who would achieve major distinction stood out (Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Nestor Basterretxea, Jose Luis Zumeta, Remigio Mendiburu, and many more). Basque society needed new cultural expressions to counteract the stiflingly grey and subdued environment created by the dictatorship.

Singer-Songwriters: Voices of Society

The singers in Ez dok Amairu played an especially important role in encouraging a new interest in songwriting within Basque society as a whole. As the singer Mikel Markez recently observed, “Ez dok Amairu was a school, one that is still relevant now.”⁵ Young people were now ready to take to the stage

⁵ Mikel Markez, interview by Uxue Alberdi, *Argia* 2,261 (23 January, 2011), 12.



“Gu gira” jaialdiaren aurkezpena, Donostiako Kursaallean; hirurogeita hamarrek hamarraldiko kantariak parte hartu zuten. Irudian, Txomin Artola / En el Kursaal de Donostia, presentación del festival “Gu gira”, en el que participarán cantantes de la década de los setenta. En la imagen, Txomin Artola / Presentation of the “Gu gira” festival, with singers from the 1970s, in the Kursaal Centre, Donostia. In the photo, Txomin Artola.

eta Josu, Hibai Rekondo, Imanol Larzabal⁶ eta beste hainbat kantari irrika eta amets guztien bozeramaile bihurtu ziren, eta herritarrek atzetik jarraitu zieten herrietako frontoiak eta plazak betez astebururo.

Ordura arteko jaialdietan ezagutu gabeko osagai berri bat agertu zen: entzuleen parte-hartzea. Ez dira hartzaile hutsak. Emozioa, ilusioa eta aldaketetan parte izateko gogoia adierazi beharra sentitzen dute, eta jaialdietan aurkituko dute kantarien eskutik barruko zirrara lau haizeetara zabaltzeko abagunea. Donostiako Belodromoan 1976ko martxoaren 27an egindako *24 ordu euskaraz* jaialdia mugarri izan zen kantaldien aro honetan.

Ez da harritzekoa, beraz, garai horietako hainbat kantuk arrasto ezabaezina utzi izana herriaren oroimen kolektiboaren soinu bandan: *“Batasuna”*, *“Azken dantza”*, *“Urtxintxa”* (Pantxo eta Peio), *“Araba”*, *“Azken agurraren negarra”* (Gorka Knorr), *“Guk euskaraz”*, *“Irabazi dugu”* (Urko), *“Bagare”* (Gontzal Mendibil eta Xeberri) eta beste hainbat eta hainbat. Abesti haiek kantaldietatik denon etxeetara iritsi zitezen bi diskoetxe garrantzitsu sortu ziren herri ekimenari esker: Elkar eta IZ. Biek diskogintzaren lehen zimentuak jarri zituzten, Ez dok Amairuren inguruan sortutako Herri Gogoarekin batera.

Hala ere, bakarlari guztiak ez zuten kantua mezu politikorako erabili. Antton Valverde, esaterako, bertso zaharrak eta olerkiak musikatzeko hautua egin zuen, 1936ko gerra aurreko poetenak (Lizardi, Lauaxeta...) zein poeta garaikideenak (Lete, Artze...); antzeko bidea hartu zuen Imanol Larzabalek 80ko hamarkadan; Txomin Artolak folk ingeles eta amerikarrerako zaletasuna euskal kantu tradizionalarekin uztartu zuen, eta Walt Whitman (*Belar hostoak*, 1978) eta Gotzon Aleman (*Ttakun ttakun*, 1979) poetak musikatu zituen; Iñaki Eizmendik kantautore urbanoaren estetika hartu zuen bi diskotan: *Gureak ez diren kale ixilen bi milagarren samiña*

⁶ Ikus 48 orrialdea

Cantautores, voz de la sociedad

Los cantantes de Ez dok Amairu despertaron la afición por el canto en la sociedad. Según ha declarado recientemente el cantante Mikel Markez, “Ez dok Amairu fue una escuela, que todavía no se ha agotado”.⁵ Aparecieron por doquier jóvenes acompañados por una guitarra, dispuestos a subirse a un escenario. Algunos optaron por aligerar viejas canciones vascas o traducir al euskera canciones de éxito internacional. Entre ellos podemos encontrar a Urretxindorrek, Ameslariak, los hermanos Argoitia y muchos más.

Pero a principios de los 70 tomó protagonismo una nueva tendencia. Para entonces, el franquismo que ya duraba casi 40 años estaba viendo sus últimos días, y la esperanza de que la caída de la dictadura traería consigo cambios políticos inmediatos (democracia, amnistía para los presos políticos, la legalización del euskera...) había arraigado entre la gente. En ese contexto, Pantxoa y Peio, Gorka Knörr, Urko, Manex Pagola, Maite Idirin, Gontzal Mendibil y Xeberri, Etxamendi y Larralde, el grupo Guk, Jokin y Josu, Hibiak Rekondo, Imanol Larzabal⁶ y muchos otros cantantes se convirtieron en portavoces de todos aquellos deseos y sueños, y los ciudadanos les siguieron fin de semana tras fin de semana llenando los frontones y plazas de los pueblos.

Surgió un nuevo componente desconocido hasta los festivales de entonces: la participación del público. No eran simples receptores. Necesitaban demostrar la emoción, la ilusión y las ganas de ser parte del cambio, y los festivales les brindaron la oportunidad de airear esos sentimientos a los cuatro vientos de la mano de los cantantes. El festival *24 ordu euskaraz* que se celebró en 1976 en el velódromo de San Sebastián marcó un antes y un después en esta época de recitales de canto.

anywhere with just a guitar in hand. Some decided to perform traditional Basque songs in a more entertaining way or sing Basque-language versions of successful international songs. These included the groups Urretxindorrek and Ameslariak, as well as the Argoitia neba-arrebak (The brother and sister Argoitia) and several others.

Yet by the 1970s another tendency came to dominate. By the time, the near forty-year Franco dictatorship came to an end and the hopes associated with a number of concomitant political changes (democracy, an amnesty for political prisoners and the legalization of Euskara) resonated through Basque society. In this context, Pantxoa and Peio, Gorka Knorr, Urko, Manex Pagola, Maite Idirin, Gontzal Mendibil and Xeberri, Etxamendi and Larralde, the group Guk, Jokin and Josu, Hibiak Rekondo, Imanol Larzabal⁶ and many other singers became the spokespeople for everyone's dreams and expectations, and the public followed them week in, week out, filling town squares and handball courts across the Basque Country.

During this time a previously unheard of new element appeared during festivals: audience participation. In short, the public was no longer a passive recipient. Instead, people felt the need to express their emotions, their joy and their desire to take part in these events, and festivals and concerts became an opportunity for everyone, via the singers' performance, to express their inner emotions publicly. In this regard, the “Twenty-Four Hours in Basque” festival, held in the Donostia velodrome on 27 March, 1976, was a watershed moment for these musical performances.

This was hardly surprising because by that time, several successful songs had made an indelible mark on the soundtrack of Basque society's collective consciousness: “*Batasuna*” (Unity), “*Azken dantza*” (The last dance) and “*Urtxintxa*” (The squirrel) by

⁵ Revista Argia, n.º 2.261 de 2011

⁶ Consulte la página 49

⁶ See page 49

Garai berean, diktaduraren amaierak ekarritako irekiduraren ondorioz, nazioarteko musika gehiago iristen hasi zen disko-denda apurretara, irratietan ere maiztasun handiagoz entzun zitezkeen munduko azken nobedadeak.

(1977) eta *Zaldi erratu hatsa* (1980); Estitxuk AEBetako folk kantuak euskarara ekarri zituen... Horrez gain, taldea desegin ondoren Ez dok Amairuko kide gehienek bakarka jarraitu zuten, bereziki Laboak, Lertxundik eta Letek.

Lehen folk eta rock taldeak

Kantaldien sukarrak ez zuen luze iraun eta euforia hura apaltzen hasi zen 70eko hamarkadaren amaieran. Garai berean, diktaduraren amaierak ekarritako irekiduraren ondorioz, nazioarteko musika gehiago iristen hasi zen disko denda apurretara, irratietan ere maiztasun handiagoz entzun zitezkeen munduko azken nobedadeak, bereziki Erresuma Batuko zein AEBetako rock eta folk kantuak, eta doinu haiekin hazitako eta hezitako gazteek instrumentuak hartu zituzten. Batzuk lehenagotik ari ziren, Niko Etxart kantaria⁷ eta Errobi taldea,⁸ kasu. Euskal rockaren sorrera izen horiekin lotuta dago. Ez da kasualitatea biak Ipar Euskal Herrikoak izatea, Frantziaren administrazioko lurralde horretan eskuragarriago baitzuten nazioarteko musika.

Hala ere, Hego Euskal Herrian ere aldaketa interesgarria ari zen gertatzen. Kantautoreen ordez lehen taldeak ari ziren sortzen: Itoiz,⁹ Izukaitz, Haizea, Enbor, Lisker, Koska, Sakre... Kasuan kasu, rock sinfonikoaren (Genesis, Pink Floyd, Jethro Tull...) eta folk ingelesaren (Pentagle, Steeleye Span, Fairport Convention...) eragina hartzen zuten, eta doinu tradizionalekin nahasten zuten. Gehienek ibilbide laburra izan zuten baina lan berritzaileak utzi zituzten, Xoxoa diskoetxe sortu berriaren eskutik, bereziki folkaren alorrean. Halakoak dira Haizearen bi diskoak (*Haizea*, 1977; *Hontz gaua*, 1989) –talde horretan eman zen eza-gutzera Amaia Zubiria abeslaria, euskal ahotsik ederenetakoa– eta Izukaitzenak (*Izukaitz*, 1978; *Otsoa*

⁷ Ikus 50 orrialdea

⁸ Ikus 50 orrialdea

⁹ Ikus 52 orrialdea

No es de extrañar, pues, que muchas canciones de esa época hayan dejado una huella imborrable en la banda sonora de la memoria colectiva: “*Batasuna*”, “*Azken dantza*”, “*Urtxintxa*” (Pantxoa y Peio), “*Araba*”, “*Azken agurraren negarra*” (Gorka Knorr), “*Guk euskaraz*”, “*Irabazi dugu*” (Urko), “*Bagare*” (Gontzal Mendibil y Xeberri) y muchos otros. Para que aquellas canciones llegaran a todos nuestros hogares se crearon dos discográficas importantes fruto de la iniciativa popular: Elkar e IZ. Ambas establecieron los cimientos de la industria discográfica, junto a Herri Gogoa, que se había creado a raíz de Ez dok Amairu. Pero no todos los solistas emitían mensajes políticos en sus canciones. Por ejemplo, Antton Valverde se dedicó a poner música a viejos versos y poemas, muchos de los cuales eran de poetas anteriores a la guerra de 1936 (Lizardi, Lauaxeta...) y otros de autores contemporáneos (Lete, Artze...); Imanol Larzábal optó por un camino parecido en los 80; Txomin Artola fusionó su pasión por el folk inglés y americano con las canciones tradicionales, además de musicalizar poemas de Walt Whitman (*Belar hostoak*, 1978) y Gotzon Alemán (*Ttakun ttakun*, 1979); Iñaki Eizmendi adoptó la estética del cantautor urbano en dos discos: *Gureak ez diren kale ixileen bi milagarren samiña* (1977) y *Zaldi erratu hatsa* (1980); Estitxu trajo al euskera canciones de folk estadounidense... Tras la disolución del grupo, la mayoría de integrantes de Ez dok Amairu continuaron sus carreras en solitario, especialmente Laboa, Lertxundi y Lete.

Primeros grupos de folk y rock

La fiebre por los festivales no duró demasiado y aquella euforia empezó a apaciguarse hacia finales de los 70. En esa misma época, tras la apertura que supuso el fin de la dictadura, empezaron a llegar más discos extranjeros a las pocas tiendas que había, en la radio sonaban cada vez con más frecuencia las novedades mundiales, sobre todo las canciones

Pantxoa and Peio; “*Araba*” and “*Azken agurraren negarra*” (Tears of the last goodbye) by Gorka Knorr; “*Guk euskaraz*” (We [speak] in Basque) and “*Irabazi dugu*” (We’ve won) by Urko; and “*Bagare*” (We are) by Gontzal Mendibil and Xeberri, among many others. These songs were not just performed live, but reached everyone’s homes thanks to the creation of two important record labels established by popular initiative: Elkar and IZ. They both laid the foundations of the recording industry in the Basque Country, together with the label Herri Gogoa that had been founded with Ez dok Amairu.

However, not all solo artists included a political message in their repertoire. Antton Valverde, for example, opted to sing old *bertsoak* (originally improvised verses) and set poetry to music, using the work of both poets from before the 1936 Spanish Civil War (Lizardi and Lauaxeta for example) as well as contemporary figures (such as Lete and Artze). Imanol Larzábal chose a similar path in the 1980s, while Txomin Artola blended a fondness for English and American folk with traditional Basque songs, and he also set the poetry of Walt Whitman (*Belar hostoak*, 1978, a translation of “Leaves of Grass”) and Gotzon Aleman (*Ttakun ttakun*, 1979) to music. Alternatively, Iñaki Eizmendi adopted the style of an urban singer-songwriter on two records: *Gureak ez diren kale ixileen bi milagarren samiña* (The two thousandth pain of the silent streets that are not ours, 1977) and *Zaldi erratu hatsa* (The breath of the mistaken horse, 1980). And Estitxu sung folk songs from the United States in Euskara. Besides these, after Ez dok Amairu disbanded most of its members went on to pursue solo careers, especially Laboa, Lertxundi and Lete.

The First Folk and Rock Groups

The impact of these kinds of songs did not last long, however, and their importance began to wane towards the end of the 1970s. At the same time, as a



Ruper Ordorikaren *Hautsi da anphora* diskoaren azala.
Portada del disco *Hautsi da anphora* de Ruper Ordorika.
The sleeve of Ruper Ordorika's disc *Hautsi da anphora*.

